



ARITZ MARTINEZ DE LUNA

«Politika berri bat egin nahi dugu talde guztiekin»

Gorka Urtaran • Gasteizko alkatea

Udal koalizio gobernurik ezean, «bestelako formula batzuk» jarri dizkie mahaian Urtaran alkate jeltzaleak taldeei. EH Bildurekin harremanak «sendotzeko» itxaropena du.

Edurne Begiristain Gasteiz

Alkate karguari neurria hartzen ari zaio oraindik Gorka Urtaran EAJko kidea (Gasteiz, 1973). Gasteizko alkatetza EH Bildu, Hernen Gaude eta Irabaziren babesarekin lortu zuen, eta bere burua oposizioan ikusi ostean egun batetik bestera aginte makila izatea «aldaketa handia» izan dela dio. Urtaranez argi dauka ezinbestekoa zela PPren politikari «hesia» jaritzea.

Maroto alkatetzatik kentzeko, zure hautagaitza azkeneko unean aurkeztea erabaki zenuen. Zaila izan zen pausoa ematea?

Ezzen erraza izan. Maiatzeko udal hauteskundeetako emaitzak ikusirik, hasieran gure asmoa ez zen alkatetzarako saioan hautagaitzarik aurkeztea, baina Gasteizen aldaketa politikoa eskatzeko mugimendua handia zen, eta aldaketa hori EAJren eskutik etor zitekeen. Eta hona iritsi gara. Badakit nola ailegatu naizen alkatetzara, eta, horregatik, behartuta nago apaltasunez eta zuhurtziaz jokatzera. Prest gaude gaimontzeko alderdi guztiekin akordioak lortzeko eta politika berri bat egiteko.

Kaleko presioak pisu handia izan du erabakia hartzeko garaian?

Kalea adierazle bat izan da. PPren azken hilabeteotako jokaerak bultzatu gaitu erabakia hartzera. Hirian oinarritzko printzipio politikoak eta giza eskubideak kolokan egon dira PPren eta Marotoren erruz, eta oso bide arriskutsua hartu zen azken hilabeteetan. Argi genuen egoera horri hesi bat jarri behar geniola, eta aldaketa politikoa lortu behar zela alkatetzan.

Akordioa izanik ere, PSEko zinegotziek azken orduan abstentzia erabaki zuten. Zer iruditu zitzaizun?

Egia esan, ez nuen ulertu PSEren erabakia, hitzartua genuelako haien aldeko botoa jasotzea eta koalizio gobernu bat sortzea Gasteizen. Andoaingo auzia aitzakia hutsa izan zen, eta, hemen ez badute aurrerapauso hori eman, PPren presioagatik ez dute eman; batez ere, Madrilén Pedro Sanchez-zi egindako presioagatik. Dena dela, baikorra naiz eta akordioa lortuko dugula uste dut. PSEren oso harreman ona daukat, eta gizarte politikan eta elkarbizitzan printzipio batzuk partekatzen ditugu.

PSEk iragarri du egonkortasuna emango dizula, baina ez dela sartuko koalizio gobernuan.

Haiekin gobernu osoatzea nahi nuen, baina orain ezin da. Badakigu Gasteizko egoerarekin zeri-zerikusirik ez duten arrazoiak dagoela tartean, eta PPren kontua dagoela erabakiaren atzean.

Gutxiengoan gobernatuko duzu, beraz.

Alderdi bakarreko gobernu gara orain [bost hautetsi, hirugarren indarra]. Gobernu plurala eta egonkorra lortu nahi nuen, eta daukadana ez da nahiko nukena, baina lanean jarraituko dugu eta koalizioa osatzeko eskaintzak mahai gainean jarraituko du. Hala ere, egonkortasunerako akordioa lortu dugu PSEren, eta garrantzitsua da hiriarentzat.

Gobernagarritasuna bermatzeko beste aukera batzuk dituzu mahai gainean?

Koalizio gobernu osoatzea da nire lehentasuna, baina ez ditut baztertzeko beste formu-

**Udaleta foru
hauteskundeak**
Ondorena

la batzuk. Izan ere, gainerako alderdi guztiei eskaini diet elkarte publikoetako presidentetza eta politika jakin batzuen kudeaketa hartzeko. Gutxienekoetan ados bagaude, prest nago kudeaketa hori beste taldeen esku uzteko.

Alkate izateko zilegitasuna kendu dizu PPK, hirugarren indarra zarelako. Zer iruditzen zaizu?

Nire izendapenak zilegitasun osoa dauka, udalean gehiengo batek aukeratu ninduelako alkate. Datoren lau urteetan erakutsiko dugu EAJren aukera oso egokia dela Gasteizko erronkei aurre egiteko eta politika beste modu batera egiteko.

EAJk ez zituen esperotako emaitzak izan Gasteizko udal hauteskundeetan. Zergatik?

Aurreko legealdian EAJk akordio asko lortu zituen, eta politika ar-

ko Udalean EAJren eta EH Bilduren arteko harremanak sendatu eta sendotu daitezkeela uste dut. Aurreko legealdian ere prest egon nintzen EH Bildurekin akordioak egiteko, baina, zoritxarrez, oso gutxitarrlortu genuen. Nahiko nuke talde berriarekin dinamika hori aldatzea; akaso, Gasteiz izan daiteke oso laborategi ona EAJ eta EH Bilduren arteko harremanak hobetzeko eta akordiorako formula batzuk aurrera eramateko.

Aldaketa izatea bermatu zuen EH Bilduk zure hautagaitza babestuta. Jarrera hori mugarrria izan daiteke elkar ulertzeko?

EH Bilduk eskuzabal jokatu zuen, eta eskertzekoa da. Erraztu egin zuen aldaketa politikoa Gasteizen, baina jendeak jakin behar du guretzat ere ahalegin handia izan dela erronka hau onartzea. Ikusi

beharko dugu ea hemendik aurrera EH Bildu prest den gauzak adosteko eta hiria aurrera ateratzeko. Ni prest nago elkarlanerako eta proiektu zehatzak partekatzeke. Adibidez, bihar bertan, EH Bilduk nahi badu, prest nago haien esku uzteko Gasteiz Antzokia-

«Gasteiz laborategi ona izan daiteke EAJren eta EH Bilduren arteko harremanak hobetu eta akordioak lortzen saiatzeko»

«PPK udalean utzi duen zulo ekonomikoa oso handia da, eta oinarrizko zerbitzuetarako dirurik ez dago»

duratsua egin zuen. Baina lan hori guztia ez dugu kapitalizatzen jakin, eta etekina PPK eta Marotok ateratu dute. Bestalde, hauteskunde kanpaina asko polarizatu zuen Marotok, esanez EH Bilduren edo bere artean aukeratu behar zela, eta horrek eragina izan zuen. Gu erdian geratu ginen, eta ez ginen gai izan hori apurtzeko. Azkenik, lehen EAJra zihoan adin nagusiko pertsonen botoa PPrein esku geratu da.

Nolakoa da EH Bildurekin duen harremana?

Ona da, eta nahiko nuke aurrerantzean ere hala izatea. Gasteiz-

ren kudeaketa edota beste edozein proiekturera, gutxieneko batean ados bagaude.

PPPrekin zubiak hautsita daude?

Erabat. Baina baita hauteskundearen aurretik ere. Marotok naguskeriaz eta harrokeriaz jokatu du gurekin, eta haren diskurtsoak marra gorria gainditu du. Hala ere, nire asmoa da elkar ulertzea berreskuratzea, eta Marotori botoa eman zioten 35.000 lagunengatik ere kontuan izango ditut legealdian. Gasteiztar guztion alkatea izan nahi dut, eta eskuzabal eta zuhurtziaz jokatuko dut.

Udaleko diru kontuak ikuska-tzea eskatu duzu. Behar den moduan ez dauden susmoa duzu?

Bai, eta oso kezkatuta nago. Ez dakigu zehatz-mehatz kontuak nola dauden, baina susmoa dugu oso gaizki daudela. PPK utzi duen zulo ekonomikoa oso handia izan da, eta oinarrizko zerbitzuetarako dirurik ez dago.

Erabakitze eskubidearen aldeko hautetsiak gehiengoak zarete Gasteizko Udalean. Ados jartzeko aukerarik ikusten duzu?

Erabakitze eskubidearen alde gaudenok adierazpenen bat adostu dezakegu, baina uste dut alkate baten egitekoa ez dela arlo hori. Politikoki garrantzia du erabakitze eskubideak, baina alkate gisa nire betebeharra gasteiztarren ongizatea bermatzea da.